PLE 05-NOV-26 (4/CP) ALDAKETAK IRUÑEKO UDALAREN ETA HAUR ESKOLEN 2026KO AURREKONTUETAN.

PLE 05-NOV-26 (4/CP)
«IKUSIRIK espedientean jasota dauden dokumentu guztiak, Nafarroako Toki Ogasunei buruzko martxoaren 10eko 2/1995 Foru Legea aurrekontuen eta gastu publikoaren arloan garatzen duen irailaren 21eko 270/1998 Foru Dekretuak ezarritakoarekin bat, eta indarreko aurrekontua betetzeko oinarriekin bat, HAU ERABAKITZEN DA:

A) UDALAREN AURREKONTUA

1.- Kredituen sorrera onestea Iruñeko Udalaren aurrekontuko gastuen egoera-orrian, *21/21100/161052 – Pentsioak eta Osasun- eta farmazia-laguntza_ Patronala Erretiroa* aplikazioan, guztira 910.000,00 euroko zenbatekoarekin; Udalaren aurrekontuko diru-sarreren egoera-orriaren aurreikuspenak gorantz aldatu direnez, horien bidez finantzatu da kredituen sorrera, aplikazioari dagokionez xehetasun hauekin bat:

20/45006 Partaidetza-tributuak – Montepioak 540.000,00 euro
20/45063 Ekarpen finantz. Eskubide pasiboak 370.000,00 euro

Aldaketa hori betearazlea izanen da onespen-erabakia hartzen denetik aitzina.

2.- Kreditu-gehigarria onestea Iruñeko Udalaren 2026ko aurrekontuko *70/23110/120091* aplikazioan (*Harrera eta komunitatea garatzea. Bitarteko funtzionarioen oinarrizko lans.*), 380.000,00 euroko zenbatekoarekin, egungo gastu-aurreikuspenen gainean aurreikusten ahal den defizita estaltzeko, Iruñeko Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikinen bidez finantzatua (diru-sarreren 20/87000 aplikazioa).

3.- Honako kreditu-gehigarri hau onestea Iruñeko Udalaren 2026ko aurrekontuan, aurrekontuan ez baitago kreditu egokirik eta nahikorik horretarako:

Aurrekontu-aplikazioa	**Deskribapena**	**Kontzeptua**	**Zenbatekoa**
60/13300/623090	Zirkulazioa eta seinaleztapena. Beste instalazio batzuk	Aparkatze arautuaren kontratuaren aurreko likidazioa	350.000,00

Aurreko aldaketa finantzatu da Udalaren Gastu-aurrekontuaren honako aplikazio hauek deuseztatzeak eragindako bajen bidez:

Aplikazioa	**Deskribapena**	**Zenbatekoa**
20/01100/310001	Finantza zama. Kontratatutako epe luzeko maileguen interesak	-11.000,00
20/93400/352000	Diru-bilketa eta Diruzaintza. Berandutze-interesak	-82.500,00
20/93300/632020	Ondarea eta Erosketak. Inbertsioak Konponketak Etxebizitzak	-50.000,00
40/32320/221001	Ikastetxeak. Eraikinen elektrizitatea	-142.500,00
41/44110/463000	Hiri-garraioa. Transf. mankomunitateei	-64.000,00

4.- Kredituen sorrera onestea Iruñeko Udalaren aurrekontuko gastuen egoera-orrian, *85/32310/410000 Haur Eskolak. Transf. arrunta, erak. autonomoei* aplikazioan, guztira 504.000,00 euroko zenbatekoarekin; *20/45030 Haur Eskoletarako dirulag.* aplikazioaren diru-sarreren aurreikuspena gorantz aldatu denez, horren bidez finantzatu da kredituen sorrera.

Aldaketa hori betearazlea izanen da onespen-erabakia hartzen denetik aitzina.

5.- Honako kreditu-gehigarri hau onestea Iruñeko Udalaren 2026ko aurrekontuko *85/32310/410000 Haur Eskolak. Transf. arrunta, erak. autonomoei* aplikazioan, guztira 396.000,00 euroko zenbatekoarekin, aurrekontuan kreditu egokirik eta nahikorik ez duten aparteko gastuei aurre

egiteko, Iruñeko Udalaren Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikinen bidez finantzatua (20/87000 diru-sarreren aplikazioa).

B) HAUR ESKOLEN AURREKONTUA

6.- Kreditu-sorrera hau onestea **Haur Eskolen** 2026ko aurrekontuan, Iruñeko Udalaren ekarpena, 900.000,00 euro jotzen duena, handitzearen bidez finantzatua (Haur Eskolen aurrekontuaren 71/40000 diru-sarreren aurrekontu-aplikazioa) eta erabaki honetako 4. eta 5. puntuetan onetsia, xehetasun hauekin bat:

Aurrekontu-aplikazioa	**Aplikazioaren deskribapena**	**ZENBATEKOA**
71/32310/120090	Funtzionarioen oinarrizko ordainsariak	100.000,00
71/32310/131090	Haur Eskoletako ordezkapenetarako ordainsariak	800.000,00
	OROTARA	**900.000,00**

7.- Honako kreditu-gehigarri hau onestea **Haur Eskolen** 2026ko aurrekontuan, 2026ko aurrekontuan kreditu egokirik eta nahikorik ez duten aparteko gastuei aurre egiteko, guztira 400.000,00 euroko zenbatekoarekin, erakunde autonomoaren Gastu Orokorretarako Diruzaintzako Geldikinen bidez finantzatua (diru-sarreren 71/87000 aurrekontu-aplikazioa), honako xehetasun hauekin bat:

Aurrekontu-aplikazioa	**Aplikazioaren deskribapena**	**ZENBATEKOA**
71/32310/160000	Enpresako Gizarte Segurantza	400.000,00
	OROTARA	**400.000,00**

8.- Aurrekontu-betearazpenaren 10. oinarriko 4. eta 5. paragrafoak aplikatuz, erabaki honetan gaitutako kreditu guztiak kualitatiboki lotuta geratzen dira, 2., 6. eta 7. puntuetako 1. kapituluko kreditu-aldaketak izan ezik, horietarako ezarri baita lotura kualitatiboa gastu-arloan eta kapitulu ekonomikoan, eta aurrekontu-aplikazio berriak sortzen ahal dira gastua behin betiko egozteko (10. oinarriko 8. paragrafoa).

9.- Indarrean dagoen aurrekontuaren 4. oinarrian ezarritakoarekin bat, erabaki honetako 2., 3., 5. eta 7. puntuetan onetsitako aldaketak Iruñeko Udalaren iragarki-taulan jendaurrean paratzea hamabost egun naturaleko epean. Hasiera batean onetsitako aldaketa horietakoren baten kontra jendaurreko epean erreklamazioak aurkezteak berekin ekarriko du Osoko Bilkurak berariaz egin behar izatea behin betiko onespena, indarra har dezaten, baina behin betiko berariazko onespen hori ez da beharrezkoa izanen erreklamaziorik jaso ez duten aldaketek indarra har dezaten.

10.- Erabaki honen 6. puntuan onetsitako Haur Eskolen aurrekontuko kreditu-sorrerak indarra hartuko du Iruñeko Udalak erakunde autonomoari egindako kapital-transferentziaren aldaketa guztiek (erabaki honen 4. eta 5. puntuan ageri dira) indarra hartzen dutenean, haiek finantzatzen baitituzte. »